

OLERKIAK

MENDI!

Askatasun arnas gazi
nire Kantauri mendi,
pago ta barruti zure gerri,
haritz ta elur-koroe goi-hesi,
burdinaren sama erraietan bizi,
zeuk sortzen duzu
nire hausnar ibilkarien abesti.

Mendia,
laino zurizko
oihal ilun
hertsia;
mendia,
gorputz sendo,
abere astun
ikaragarria;
mendia,
mamu-itzal
liluragarria;
mendia,
ernari ixilez
ameslaria;
mendia,
bakardadez,

urruntasunez,
 mezularia;
 mendia,
 argi-uholdez,
 zorroztasunez,
 dei bizia;
 mendia,
 iman iraunkor
 erakarle
 dizdizaria;
 mendia,
 gauza guztien
 berezkotasunaren
 oihularia.

Mendi!
 Hor zaude tente,
 erronkari,
 deika ta deika,
 txistulari.
 Mendi!
 indar erakarle
 agintari,
 eupada akuilu
 zirikalari.
 Mendi!
 haitz zorrotz bizi,
 hizlari gori,
 ekaitz beltz gorritan
 burrukalari.
 Mendi!
 gainez egin duen

olatu jori,
 ortziaren lagun
 hegalari.
 Mendi!
 giza-bihotzaren
 bultzalari,
 joran eta ametsen
 baratze guri.
 Mendi!
 gulerizko moldez
 dei dantzari,
 soin eta gogoaren
 hats jostalari.

Mendi!
 itsaso ta lurraren
 tala argi,
 gorago ... neuago
 zaitut senti.
 Mendi!
 izatearen neurrikotasunaren
 gorenengo mugarri.

Mendi!
 banatorkizu,
 zeuk bait nakarzu,
 dena ixil, dena geldi,
 ni ordea, laba-su,
 txingar eta errainu,
 zeuk hartu nauzu
 kolko eta buru,

eltze irakin bihurtu,
 zenbat eta gorago
 hainbat sakonago
 barne-hariak ezagutu,
 neutasun barnean murgildu;
 oinhotsak soilik
 garaun-giltzen neurri,
 asmo hegalariak neuretu,
 gailur nahiak hausnartu,
 bizi-poz ogiak mamurtu,
 larri urduriak samurtu.
 Niretzat, zuregan,
 bakardadea ezezagun,
 zeu zaitut bidelagun
 bizitakoaren mamiaz,
 haize berritsuak ekarriaz,
 etorkizunaren minaz
 neure sakon gurian,
 etengabeko ixurian
 eskaintzen bait zatzaizkit,
 atseginezko zauritan,
 zure hitzen su goritan
 sendatzen bait nauzu.
 Banatorkizu,
 zeuk bait nakarzu,
 zure soken laztanek
 besarkatzen bait naute.
 Zuregan, mendikate,
 betiko elkarte,
 askatasun bete!!!

Lontzo zugazaga
 (1989)